



Prologoa

«Ni periferia naiz. Zu periferia zara. Huralha periferia da. Gu periferia gara. Zuek periferia zarete. Haiek periferia dira. Nork ezartzen du zer eta nor den periferia? Indartsuenak bere handitasuna erakutsi nahirik esaten du non dagoen zentroa, zer den hegemonia; are gehiago, maiz, nor eta zer izan behar duzun esaten dizu. Aurre egin dakioke horri, baina olde nagusiak jarraitzen du normalean hegemonikoak esandakoa, eta hain zuzen ere honek ere legitimatzen du bere periferiaren ideia. Harrotasunaren mozkorraldian ahaztu egiten du edozein izan litekeela periferia, edozein unetan bihur zaitezkeela periferia, aski dela mugimendu txiki bat jabetzeko zure zentroa ez dela zentroa, soilik zure zentroa dela.

Iolanda Zuñiga idazle galizarrak aspaldian esan zuen: “Denok gara periferia, baina batzuek ez dakite”. Esaldi hori etorri zitzaidan lehengoan akordura, beste idazle galizar batek, Olga Novok, egunkari honetan emandako elkarrizketan. “Periferiaren ideia ustezko zentro baten oinarrian eraikitzen da. Beraz, ez dut uste periferiatik idazten dudarik, ez memoria periferiko batetik ere, ezta leku eta hizkuntza periferiko batzuetatik ere. Ama hizkuntzan idazten dut, nire sorterriaren inguruan eta nire jendearen memoriaren inguruan. Hortaz, nik nire zentrotik idazten dut, noski”.

Nik ere nire zentrotik idazten dut, eta hortik ni ez beste denak diral/zarete periferia. Eta ni ere sentiarazi naute inoiz periferiko zentzurik laidogarrienean, eta deseroso sentitu naiz, galernak itsasoan harrapatzen zaituenean bezalaxe. Eta, egia aitortuko dizut, ez zait inporta zure periferia izatea, zuk onartzen baduzu

zu nirea zarela. Tamalez, hau gertatzen da periferia direla ez dakitenekin, eta hor sortzen zait niri arazoa, errespetu falta horretan, gutxiespenean. Periferia beti baita bestea, edo Gustavo Adolfo Becquerrek esango zukeen bezala, periferia zu zara.

Periferiak. Berria. 2021 eko apirilaren 27an, Goizalde Landabaso».

Zer ziren aldiriak 2010. urtean? Eta 2021 eko ekainean? Zerk definitzen du Aldiri? Denborak, tokiak, eta ezagutzak?

Tempus

«Architecture is not about space but about time». Behin irakurri nion gizonetzko arkitekto ezezagun bati diziplina hau espazioaren elementuen kudeaketan espezializatu dela eta kasu gutxi egin diola denborari. Aintzat hartzeko faktorea izanik, Aldirin zer puntutaraino eragin digun galdetzen dut. Aldirik 11 urte baino gehiago egin ditu, 4.015 egun, 240.900 ordu eta 14.454.000 segundoko gutxieneko bititza izan du. Proiektuari hasiera eman ziotenendako asko izango da, amaiera eman diogunoi baliteke motz geratu izana pausoa. Denborak duen pertzepzio ulergaitzak definitzen du proiektua, bertan jardutearen sentsazioa luzea eta motza izan da.

Denboraren kontra joan da proiektua, azken urteetan gehienbat. Arnasestuka joan gara(naiz). Ehun metroko lasterketak egin ditugu(dituz), ohartu gabe edo ahaztuta maratoi batean geundela(nengoela). Erritmo propio bat ez finkatzeak edo data-entregekin gaizki ibiltzeak ito du(nau). Amaieran uste genuen(nuen) jendeak idazteko grina gutxitu



1. irudia ~ Gasteizko aldiriak.
Egilea ~ Ander Zangitu Orbea.

edo gaiak agortzen hasiak zirela, eta neguan hartutako geldialdiak erakutsi digu(dit) proiektuak behar zituen tempusak eta errealitatearenak ez direla bat etorri. Aldizkariak eta partaideok denbora propioak behar genituen(nituen).

Bazterretatik jarduteak denbora propioen jorratzea izan beharko luke. Eta ez da horrela izan, zentroetan gauzatzen diren erritmo-denboratan ibili gara. *Aldiri* denbora batean sortu eta hiltzen joan den ekida baten gisa ulertu behar da, jaiotzetik hiltzera kondentatuta. **Denboran aurreratu zen planteamendu bat, hutsune bat betez.** Hutsune bat betetzeak espazio bat definitu du.

Non zeuden periferiak *Aldiri* sortu zutenean? Non daude orain? Zer da aldiria orain? Guztiz identifikatzen gara prologoarekin? Gure periferiatasuna aldiriak al dira? *Aldiri* hiltzeak beste periferia batzuk azaleratzaea ekar dezake? Toki edo leku batek definitzen du?

Bergara

Leku batetik idaztea izan daiteke, herri batetik, hiri baten periferia batetik, edota prostibulo batetik. **Toki batetik idazten zela uste eta horretatik gutxi eduki duelakoan nago.** Posizionamendutik gehiago izan du lekutik baino, botere espazialen harremanetatik.

Orain dela x urte definitutako periferiak, eta bertan identifikatuak sentitu zirenak, gaur egungo errealitatearekin bat ez datozelakoan nago. Tarte honetan lekuz aldatzen joan dira(gara), denboraren poderioz zentrorantz gerturatu dira(gara) eta haren inguruan beste aldiria batzuk sortu dira. Haatik, aldiria horiek argi-urteetara gelditzen zaizkigulakoan nago. Espazialki gertu daude, gure bizilagunak izan daitezke. Baina non kokatzen dira aldiriak? Periferiak beti hirien kanpoaldean kokatu izan ditugu, eta herri bat aldiria izan liteke?

Aldirin idazteko gonbita jaso nuenean Bergarara bueltatu berri nengoen. Gogo eta bertigo handiz eginiko ariketa bat izan zen, eskolako blogetik irten eta plaza publikora salto egitea baitzen. Gogoan dut ekotonoen inguruan idatzi nuela (21.-22. zenbakia: «Azken KAPak», PFC-KAP-GAL).

Ekotonoak bi ekosistemaren artean kokatzen dira eta haietan bi ekosistemen arteko nahasketa edo mestizajea gertatzen da. Hau da, ekosistema lurta batetik uretako ekosistema batera pasatzean ekotonoa trantsiziozko ekosistema izaten da. Horiek habitat bereziak dira eta bertan egon daitezkeen espezieak bereizgarriak dira. Bi munduen arteko diferentziak modu orekatu batean gauzatzen dira. Limite-izaera du, baina bien arteko lotura gauzatzen da; bi munduen hasiera eta bukaera.

Aldizkaria ekotono gisa ulertu beharrean gaude. Bere baitan eta hasieran aldiria izan zen, baina gerora ez guztiz. Trantsizio-gune bilakatu da, bozgorailu bat eta erdigunera joateko lanabes bat. Ekosistemen arteko zubigintza gauzatu du, betiere zentrorra begira eta ez kanpoaldera begira.

Niretako herritik idaztea aldirietatik jardutea zen, baina betiere zentro bateriko begirada batean oinarritzen zen eta gutxi nire kanpoaldean-inguruan kokatzen zenaren katalizatzailea. Akaso kanpoko tokiko posizionamenduak ekarri ditugu orrialdeetara, oso aberatsak eta azpimarratzekoak, baina agian oso zentrorra begira. Zelako ezagutzak planteatu dira?

Patata

Memoria-ariketa bat eginez, «Nekazaritza eta Modernitateak» zikloko jardunaldietara joan da burua. Emmanuel Lizcanok patata aitzakia hartuta, tradizioaren eta modernitatearen arteko desberdintasunak aztertu zituen.

Haren esantetan bi ezagutza mota daude: abstraktua eta lokala. Abstraktua egungo ezagutza zientifikotzat definitzen da, teknokraziak bultzatzen eta defendatzen duena: ezagutza modernoa. Lokala, aldiz, ezagutza herrikoa da, belaunaldiz belaunaldi transmitzen dena; ezagutza kolektiboa. Ezagutza transmititu egiten da komunikazio horizontala izanik; patatak lur azpian egiten duen moduan. Bata bestearen kontra aurkitzen dira, abstraktuak ezagutza herrikoa zapalduz. Patataren goiko aldean ezagutza zientifikoa eta behealdean, lur azpian, ezagutza herrikoa.

Zer planteatu da *Aldiritik*? Zer motatako ezagutza transmititu da? Ezagutza horizontalki edo bertikalki transmititu da? Ezagutza hierarkiko akademikoak jorratu dira? Edo ezagutza kolektiboari lekua eman zaio? Bi ezagutza horien arteko hibrido baten aurrean gaudelakoan nago. Horizontalki jorratu baita ezagutza zientifikoa, eta herrikoiak presentzia txikia izan du. Ezagutza periferikoak bizirik irauteko lursaila izan da. Hala ere, *Aldiri* hiltzean, patatak ereiteko lursail berriak beharko dira. Lursail horiek komulanak izan beharko dira, denon artean ezagutzaren transmisioa ahalbidetuko dute eta ezagutza herrikoiak babestea helburu izango dute..

Patata gure elikadurako oinarrietako bat da, beharrezkoa. Arkitekturek gure bizitzetan duten eragina hobeto ulertzeko eta deseraiatzeko *Aldirik* beste patata batzuk ekarri ditu otorduetara. Gure dietetan oinarritzko lehengaiak izan da, eta bertatik planteatutako ezagutzek beste jakintza batzuk topatzera bideratu gaituzte. Galdera berriak egitea ahalbidetu du, eta hori lortu izana, Arabako patataren jatorri-izena lortzea baino garrantzitsuagoa izan da.

Hala ere, zer ezagutza mota jorratu den baino areago, nola egin den azpimarratu behar da. Euskaratik eginiko proiektua da. Funtsezko ezagutza herrikoa babestu da eta gure ama-hizkuntza izan da proiektuaren erdiguneari egon dena, dena artikulatu duena. Euskaratik euskal hitzuneneko eginikoa izan da, arkitektura euskaraz ikasi duguonatzat harribitxi bat eta gizarteari opari bat. Gure ama-hizkuntza beste errealitate batzuetan txertatu da. Nola horren atzean komunitate txiki bat dagoen. Zuek, haiek, eta guk osatua.

Epilogo

Komunitate hori harribitxi bat da, izan da eta izango da. Harrabitxien artean diamantea dela esan daiteke. Materialaren gogortasunari esker ibilbidean suertatu diren eragozpenei aurre egin zaie, eta ez dira gutxi izan. Material gogorra da, bere barnean sare-egitura baten logikan funtzionatzen du (feat David Fernandez). Definizio horrekin bat dator.

Bertan parte hartu duten arkitekto, idazle, soziologo, ilustratzaile, harpidedun, komikigile, inprentako langile, Nekane... eta abarren artean gure komunitate txiki bat sortu dugu. Bihotzez, eskerrak proiektu honetan partaide izatea ahalbidetu duzuenoi, eta bereziki zuri. Irakurle maitea. Zuek osatu duzuen sarearen ondorioz bertan jausteko pribilegioa izan dugu. Sare honetan arkitekto ez direnen begiradek asko irakatsi digute, eta diziplina honen inguruan genuen begirada guztiz aberastu da. Arrotza izan daitekeen gai bat publiko orokorrera zabaldu da, eta ez da gutxi.

Honela gogoraztea nahiko nuke memoria kolektiboan: denbora mugatu batean bizirik egon den ekotono berezi bat, non patatak jaten biziraun dugun, eta diamante itxura hartu duena. Gure etorkizun kolektiboari buruzko galderak egiten hasi ginen haren hiletan. Agur-idatzi hau idaztean galdera berriak azaleratu zaizkit... baino kitto. Agur eta ohore. Baliteke informazio-saturazioa edukitzea gaiaren inguruan, eta autokritika ariketa honek erakutsi dit Aldiri hil beharra zegoela (edo hila zegoela aspaldi). Ez-jakintza une baten beharrean gaude (feat Marina Garcés), irudimenari bidea emateko momentua iritsi da. $x+y+z$ berriak etorriko direlako!

+++